

«BATEGINIK»EKO AHOLKU BATZORDEKO PARTAIDEAK MINTZO BI HILABETEOTAKO KANPAINAREN IBILBIDEAREN INGURUAN

Bilbon burutuko da datorren igandean euskaltzaleon kanpaina bateratzailea

Datorren igandean emango zaio amaiera EHIK eta EKBren abiapuntuzko bultzadaz martxoaren 16an hasitako «Bateginik» kanpainari, bi hilabeteotako zirko, kantaldi, kirol, diru eta sinadura bilketa eta herrietako ekitaldien ondorengo paregabeko jai egunez burutuz Bilbon. Orrialdeotan hainbat Aholku Batzordeko zenbait partaideren balorazioak jaso ditugu.

«Bateginik» estreinatu bezain pronto kultur orrialdeotako lehendabizikoetan kanpainaren segimendua egiten saiatu gara asteroko ekitaldi eta ospakizunen berri ematen, ahalik eta prestuen nola modurik txukunenean betiere. Hala eta guztiz, kanpainaren diseinu zabalari trabatu zaizkion azken orduko ohizko eragozpenak direla-eta, ARGIAk iragarritako zenbait ez da gauzatera iritsi.

Albiste gisan aurkeztu ditugun ekitaldion aldamenen hainbat kanpainako Aholku Batzordeko hainbat partaide elkar hizketatu izan ditugu «Bateginik»en izpiritu, helburu eta premien ganean perspektiba ezberdinetariko eritziak jasotzearen. Segidako hauetan berriaz, kanpainari buruzko gogoeta eta balorazioak bildu azmoz zuzentzen ditugu.

Gotzon Garate:

«Premiatsua Iparralde eta Nafarroako egoera»

Inpakto falta itxura hartu dio Gotzon Garatek kanpainari, euskaldunen kontzientzia area-

gotu baldin badu ere oraindik ikusteko dagoelarik ingurukoengan zenbateraino suertatuko den eraginkor.

«Nik dena den Iparralde eta Nafarroa herrialdeetako euskararen egoera premiatsua azpimarratuko nuke gauza guztien gainetik. Horregatik kontzientziazte kanpainak indar bereziz landu beharko litzatekeela pentsatzen dut, batik bat bertako ikastolen eta euskararen aldeko taldeen etengabeko lanak erantzunkizun falta duelako gero biztanlegoagan».

Patxi Zabaleta: «Euskara ondasun publikoa»

Baikortzat jo du nafar euskaltzainak kanpainaren bila-kaera, nahiz eta hasiera batean espero bezainbateko arrakastarik lortzea lortu ez duen. «Hor-

tan badu zerikusirik bai alderdi politiko bai gure herriko jende multzo baten jokabideak kanpaina ez onestean. Alde horretatik entusiasmo falta nabaritu dut, nahiz eta ondorioak txikiak izango ez diren».

Beharbada helburu hain konkretuetan saiatu izanak eragozpenik ekarri diolakoan dago, agian euskararen aldeko kontzientzia helburuak soilik jendearekiko hunkiera sakonagoa eragingo bait zukeen. «Gainera, Nafarroa eta Iparraldeko ikastolen beharren azpimarratze horrek pentsa araz lezake Euskal Herriko beste aldeetan euskarak ez duela premiarik edota bere beharrak nolabait erantzunik badutela».



BATEGINIK

Jendearen euskararekiko borondatea nola geureganatzean legoke Patxi Zabaletarentzat egungo prolema-rik larriena, horretarako nahitaezkoa izaki euskararen ondasun publiko gisan sentitzea eta harremanetarako egokia den tresna. «Uste dut euskararen geroa ez dela instituzioetan jokatzeko, nahiz eta esparru horretan ere borrokatu behar den. Nik adieraziko nuke, jendearen borondatea ira-

baztea izan beharko lukeela kanpaina guztien helburua, eta horren ondorioz instituzioei zailtasunak sortzea baldin eta ez badute gure ondasun publikoaren gure hizkuntzaren erabilpena errespetatzen. Baina hizkuntzaren erabili beharra gizartearen sortu behar da, instituzioak ondorio bezala horri erantzun bat eman beharko diotelako».

Jazinto Iturbe:

«Kanpainak bere

konpromezuak bete ditu»

Jendearen partaidetzak behar bezainbateko gertatu ez den inpresioa jaso du Jazinto Iturbek, nahiz eta hainbat sektoretaraino iristea lortu izan, biztanlegoaren gehiengo zertan izan den konturatzeko ge-

ratu delako. «Askok oso urrutiko kanpaina baten itxura hartu dion susmoa daukat. Esate baterako, Bizkaiko ezkerretako herrietaraino hedatzeko bestelako jarrera bat, diseinu bat beharko zukeen kanpainak». Buruturikoa beharrezko izan den arren, kanpaina baten amaierarak adre gehiago erakutsi beharko lukeela azpimarratu nahi izan du lehen eta azaleko balorazio legez.

Indar politikoen batasuna zailantzan jartzeko modukoa iduriz jarraiki dio, «lortua izan bada ere beranduegi gertatu da, alderdi politikoei helburu konkretu batzuren azpian jarri ditzutela helburuak, bakoitzak bere aldera moldatzen saiatuz».

Hizkuntzaren aldeko batasunari dagokionez, «Bateginik» en saioa eta esfortzua begirunez txaloturik, «euskaldungoaren eta Euskal Herriaren batasuna hari linguistikotik abiatuta ulertzen baldin badugu behintzat, bere konpromezuak bete dituela esan behar da». Kontzientziaren indartzerakoan ordea, euskaldungoaren maila errezeptiboenean eragin du gehiago akaso besteengan baino. Hala ere egindakoak segidakorik beharko luke, pentsatuz ondorioak ez direla biharamunean ikusiko eta kontzientziaren heldutasunarekin batera helduko direla benetako fruituak.

PERU UNTZUETA

ARGIA.— Kostata, baina indar politiko abertzale guztien partaidetza lortu du azkenean kanpainak. Zergatik hainbeste errezelo bat egitera orduan?

TXILLARDEGI.— Herri honetan euskalzaletasunik ez dagoela da esplikazio nabarmena. Oraindik ere hizkuntzaren arazoa ez da seriotan hartzen, ez eta gutxiagorik ere. Beste herrietan gertatzen ez den bezala, hemen hizkuntzari ez zaio lehentasunik ematen. Esate baterako, oraindik ere batzuek ari dira halako bereizketan egiten, abertzale izan litekeela pertsona bat nahiz eta euskaltzalea ez izan, eta euskalduna izan litekeela euskararik gabe, bienbitartean erdaldunak beren hizkuntza inposatzen ibili arren.


A.— «Bateginik» zein neurritan gerta liteke eraginkorra orduan euskararen kontzientziazte esfortzu honetan bai biztanlegoagan bai instituzio desberdinetan?

TX.— Orain dela ia laurhun urte Oihenartek bildutako atsoitiz batek zioen bezala, «arraïna burutik karasten da»; hau da, arraïna burutik hasten dela useltzen. Honekin esan nahi

dut gauzak goitik konpondu behar direla eta ez behetik. Ezin da, adibidez, 'beheko' jendearekin gogor jarri, 'goikoarekin' jartzen ez baldin bagara. Herri honetan Bozeramaile Ofiziala eta Unibertsitateko errektorea eta Hezkuntza sailburua eta abar erdaraz bakarrik bizi badira eta ez bada ezer gertatzen, ondorioz batere ez, hor ikusten da gure hizkuntza guztiz estratosferikoa dela. Nola jarriko naiz ni gogorrago —Unibertsitatea ipiniko dut kasu— bedelarekin errektoreak ez badu beharko lukeena praktikan jartzen?

Askotan errepikatu dugu: diglosia baldin bada bi hizkuntzen jerarkizazioa, funtzio desberdinak betetzea bata inportantea eta besteak inportantzia gabeak —tira, ez da hori bakarrik diglosia baina—, orduan diglosiari buelta eman behar den hizkuntza bihurtu Euskal Herrian bizitzeko, eta beharrezko aldiz, euskara.

Txillardegik: «Euskal Herrian hizkuntza arazoa ez da seriotan hartzen»



Eta egunero-egunero zeharo alderantziz gertatzen da.

Ni «Bateginik» kanpainaren alde nago erabat! Baina gure eskutan dauden instituzioetan euskara ezinbestez beharrezko izan gabe alferrik dira kanpaina guztiak. Eta funtsean prolema politikoa dela esango dute.

Konklusio horretara iritsiko ginatke, eta ez da hain zuzen sorpresa bat...

A.— Bestalde, Iparraldeko eta Nafarroako ikastolen laguntzeko kanpainaren helburua dela-eta, egingo zenuke ikastolen egungo egoeraren diagnosi bat?

TX.— Diagnosi horiek egitekotan, nik uste dut aztertu beharko litzatekeela ea hizkuntza noraino den normalizatua alor batean zein bestean. Nafarroan, dudarik gabe, euskara ez dago normalizatua inondik ere, eta bistan da hangoen aldeko denon laguntza eta bultzadaren beharra, han gauzak beharbada sentidu gehienetan Baskongadetan baino askoz okerrago daudelako.

Hala ere ez dut ahaztuko Baskongadetan hizkuntzari buruz eta arazo soziolinguistikoei buruz dagoen ezjakintasun osoa, harrokeria eta segurkeria. Hemen ez dago prolema-rik, gauzak oso ondo doaz' eta holako guztiak entzuten ikusita, ez dakit noraino dauden egoerak hain diferente. Baskongadetan gauzak hobeto daude zentzu batzutan, baina jendeak ez du sinetsi nahi gauzak oso gaizki doazela.